

«Gure euskaltasuna esplikatzen saiatu naiz»

Tximista batek Altzako San Martzial elizako erlojua gelditu zuenetik beti dira 10:30ak herrian. Orduak pasatzen dira, denbora geldirik dago. Beste mundu batean egotea bezalakoa da. *Bestea da mundua* du izena, hain zuzen, Joan Mari Irigoienen nobela berriak. *Orbetarrak* trilogiako aurreneko liburua da eta aste honetatik aurrera izango da dendetan.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Dani Blanco

Errekor bat hautsiko du liburu honek: trilogiako lehen liburuak 400 orrialde baino gehiago ditu. Beste bi falta dira. Gutxitan aurkitzen ditugu hain lan luzeak euskaraz.

Nire gogoaz ez da Guinness liburuan ateratzea baina buruak batzuetan arnas luzeko gauzak idaztea eskatzen dit. Gaur modan dago liburu bat egin eta elipsiekin jostea. Ez dut esango hori gaizki dagoenik, nik ere erabiltzen ditut elipsiak batzuetan, baina lan honetarako beste era bateko planteamendua egin dut. Elipsiak egiterakoan konturatzen naiz zerbaitekin iheska nabilela: ez dakit zer esan nahi dudana eta

elipsia erabiltzen dut erantzun gisa. Horregatik nobela honetan saihestu egin nahi izan ditut.

Dena dela, parentesi artean esan behar dut nobela gehienak elipsiz josita daudela. Nobela baten denbora erreala hartzen baduzu eta zuk bizi duzunarekin alderatu, garbi dago %1 baino ez duzula ateratzen liburuan.

Baina nobela honen kontatzeko moduak eskatzen zidan pertsonaien barne denbora islatzea: tarteka erreflexioak egin, irudiak eta ekin-tzak moztu, izoztu, barrua arakatu. Nobela honetan bizitzaz, heriotzaz, jainkoaz, ateismoaz... hitz egin dut, baina barrualdera begira.


Argitaratzera doan ordena berean idatzi al duzu?

Ez, trilogiaren bigarren partearekin hasi nintzen. Baina hori egin nuenean konturatu nintzen lehenbiziko partea ere behar zuela. Bigarren zatian familia baten gorabeherak kontatzen dira, eta aurrenekoan familia horretako gurasoen istorioa kontatzen da, Nazario Orberena eta Regina Aldasororena. Zertarako kontatu behar da horien istorioa? Ikusteko nola gauza batzuk errepikatu egiten diren belaunaldiz belaunaldi. Beste testuinguru batean beharbada –kanpoko mundua aldatuz doa–, baina jarrerak berdinak dira.

Trilogiak *Orbetarrak* du izena eta liburuko protagonistak labe garaiak martxan jarri berri ditu. Orbegozo familiaren historian oinarritu al zara?

Ez, baina izan zitekeen. Orbe aukeratu nuen abizen labur bat behar nuelako. Nik ereduaz Patrizio Etxeberriarengan bilatu nuen, nahiz eta liburukoa ez den haren bizitza ere. Funtsuan ezerezetik enpresa bat eraikitzeke gai den gizon baten istorioa azaldu nahi nuen.

Dena dela, zenbat du istoriotik liburuak, eta zenbat nobela historikotik?



Historian kokatuta dauden neurrian, nobela guztiak dira historikoak. Baina uste dut genero horretaz daukagun estereotipoari ez diola erantzuten. Liburu guztien azpian dago idazleak irakurritako zerbait, eta kasu honetan, zehazki ez duen arren, Dostojevskiren *Krimena eta zigorra* dago, introspektzio psikologikoaren aldetik.

Pertsonaien arteko dikotomien bidez eraikitzen da liburua. Nazario eta Beñardo Orbe anaien aurkakotasuna da bat. Zer irudikatzen du bakoitzak?

Nazario boterearen arketipo bat izango litzateke, Beñardo aldiz tipo errebelde bat, bere izaera duena, berezia, eta gizarte arautu batean txertatzea kostatzen zaiona. Orain mundua nola dagoen ikusi besterik ez dago: Bush eta AEBak mundu arautua dira eta horiek erabakitzen dute zein den ona eta zein txarra. Baina niri azpiko historia interesatzen zait eta nobela honetan Beñardoren baitan haragitzen da hori.

Liburuko pasarterik makabroenean Nazariok anaiaren gorpua labean erretzen du. Industriak hil al zuen gizon librea?

Irakurle bakoitzak nahi duen bezala har dezake. Liburuan ekintza horri bere esplikazioa ematen zaio, alegia gure baitan izaki nahastu bat ez ote dagoen hiru burmuin dituen: pertsonarena, ardiarena eta krokodiloarena. Askotan krokodiloa nagusitzen zaigu. Ez daukat dudarik Bushi-eta krokodiloa nagusitu zaiela, eta horrela doa mundua. Botereaz hitz egin nahi izan dut bere biluztasunean, gero bakoitzak nahi duen bezala interpreta dezake.

Beste dikotomia markesaren bi alabetan aurkitzen dugu: biak gizon berarengatik borrokan ariko dira. Lehenago ikusia dugu hori zure obran. *Babilonian* esaterako bi anaia ageri ziren emakume berarengatik lehian.

Konstante bat da nire lanetan. Gure harremanak gatazkatsuak dira, oso "territorialak" gara, ez bakarrik alor fisikoan, baita alor psikologikoan ere. Hesiak ditugu, batzuk aurrekoengandik jasotakoak, besteak guk eraikitakoak, eta horrek izaki problematiko bihurtzen gaitu. Kasu honetan, bi neskak bikiak dira, berdinak, eta gizon berarekin maiteminduko dira. Horrelako egoera batean lehiaren parametroak garbi ikusten dira %100ean. Baina hain argi islatzen ez badira ere, antzeko lehiak hor ditugu edozein unetan azaleratzeko prest. Izaki lehiakorrek gara. Hobbesek esaten zuen *Homo homini lupus* [Gizona gizonarentzat otsoa da]; ez dakit hainbestearinokoa den,

Hiru liburu, nobela bakarra

Bestea da mundua idazteko askatasun handiz jokatu duela dio Joan Mari Irigoienek. Istorioa XX. mende hasieran kokatua bada ere, gaur egungoa du narratzailea eta aurreko mendeaz duen ezagutza erabiltzen du istorioa kontatzeko.

Orbetarrak trilogiako lehen liburu hau besteak baino "barreiatuagoa" iruditzen zaio. Hala behar du ezinbestean egilearen ustez, istorioa behar bezala kokatu nahi bada. Bigarren liburuan azalduko da Orbe familiaren istorioaren mamia: Nazariok eta Reginak zazpi seme-alaba izango dituzte. Gaitz fisiko batekin jaioko da horietako bat. "Zen-tratuagoa" izango da liburu hori, Altxako idazlearen esanetan.

Azkenekoan berriz, bi anaiek hartuko dute narratzaile lana. Bat ateoia izango da, "argia, etxeko azkarrena". Bestea berriz frantziskotarra, baina liburuak aurrera egin ahala bere pentsaera aldatzen joango da. "Ezkioko amabirjinaren agerpenean sinestetik, beste muturrera joango da".

Idazle nekaezina da Irigoien eta bere hurrengo liburuan pentsatzen ari dela aitortu digu. Lehenago honekikoak egin behar ordea. Datorren urtean argitaratu nahi du *Orbetarrak*-en bigarren liburu, bi partetan. Hemendik bi urtera berriz, hirugarrena. "Bizi bagara (kar, kar, kar)".

baina gure erroetan daukagun zerbait da eta gizarte hobia nahi badugu indar horiek nola edo hala bideratu egin behar ditugu. Tira, baina hori beste nobela bat izango litzateke.

Esango nuke istorioa ez dagoela abertzaletasunetik kontatua. Regina Aldasorok garrantzi handia ematen dio, adibidez, espainolez ondo hitz egiteari...

Aukera nezakeen familia abertzale bat baina beste estilo batekoa aukeratu dut. Hori Euskal Herrian existitu da eta gainera, konturatuko zinen moduan, hizkuntza beste parametro psikologiko bat bezala erabili dut. Gure euskaltasuna modu batean edo bestean esplikatzeko saiatu naiz: hizkuntza normalizatu batean bizi den norbaitek, nire ustez, ez du hizkuntza arazo bezala erabiliko. Nik berriz, hori bizi izan dut umetatik. Reginaren kasuan argi dago bere eboluzioa.

Era berean, bere komunitate osoarena ere izan daitekeena.

Bai. Beñardorena aldiz, alderantziz egiten da. Euskararengatik jazarriak izan direnek bi eredu horiek jarraitu dituzte: batzuek, Stockholm-eko sindromearekin beste mundu bat proiektatzen dute —*Bestea da mundua*—, erdarena, markesarena; beste batzuek ordea, Beñardok kasu, ezin dute mundu hori garatu eta halako errebeldia bat ateratzen zaie.

Baina Beñardo hil egiten da eta Regina bizi.

Eta semeak izango ditu eta haiekin ere izango ditu hizkuntzarekin lotutako arazoak. Hor ere izango da saltsa hurrengo liburuetan. ■

“Oso ‘territorialak’ gara, ez bakarrik alor fisikoan, baita psikologikoan ere. Horrek izaki problematiko bihurtzen gaitu”